

Martin Ugalde: "Ekonomi zentsuraz isildu nahi dute Egunkaria"

Jose Mari Pastor

Euskaldunon Egunkaria, 1992-06-21: 18.

Martin Ugalde idazle eta historialaria EGUNKARIAren Administrazio Kontseiluko Lehendakari dugu. Nahikoa lan eta nahikoa kezka ekartzen dizkio zeregin honek. Baita poza ere. Jaurlaritzarengandik sufritzen duen jarrera ukakorren ondoan, euskaldun eta euskaltzaileen berotasuna sentitzen bait du. Batzuei zein besteei, EGUNKARIAK estuasunak izan arren, aurrera egingo duela azpimarratu nahi izan die elkarrizketa honetan.

EGUNKARIA.- Urte t'erdi subentzio eta publizitate instituzionalik gabe izan ondoren zerk bultzatu du orain EGUNKARIA kanpaina hau egitera?

MARTIN UGALDE.- Guk harremanak izan ditugu Kulturarekin garai honetan, bi aldiz gutxienez, eta ez dugu ezer atera. Ez digute ezer eman, ezta aurrerako biderik jarri ere. Orduan bide batetik gauzak itxita dauzkagula, herrira jo behar dugu laguntza honen bila. Herriak erantzun egin du orain arte, inork ez bezala, bai egunkaria erosten, bai jendea bildu eta akzio txikiak erosten. Mila modutara erantzun du herriak eta berarengana jo dugu. Ez dago beste erremediorik.

EGUNKARIA.- Bestalde batetik, ze balantze egingo zenuke EGUNKARIAz produktu bezala, denbora tarte hau pasatu eta gero?

UGALDE.- Nik uste dut inork espero ez zuena egin dugula eta ez da erraza izan. Egunkaria egitea, aurrera ateratzea eta une t'erdi orain betetzea... Esan daiteke berebizikoa egin dugula, berebiziko lana. Euskadi osoan zabaldu egunkari bat, kalean salduta, badakizu zer lortzea den? Lorpen izugarria da hori, orain arte ez du inoiz euskarak halakorik lortu. Honek ez du esan nahi egin dugunarekin konforme gaudenik. Nik uste dut orain arte egin dugun egunkaria neurri laburrez eginga izan dela. Gure jendeak ez du behar hainbat irabazten, guk ez dugu behar adina orrialde egiten...

Guk bigarren pausua eskatzen genuen orain dela sei hilabete. Zein zen pausu hori? Beste erdarazko egunkariak dituzten eskualde bakoitzeko orrialdeak egitea: Bidasoa, Debaldea, Tolosaldea, eta besteak, hola egunero, herri guztietara iristeko. Horretarako orrialde asko behar dira, eta kazetari gehiago. Subentziorik ez bazen ere, publizitatea lortuko genuela uste genuen. Asmo hori ezin izan dugu gauzatu eta falta zaigu. Oraindik ez dugu lortu baina horren atzetik gabiltza.

EGUNKARIA.- Lehen, eta astearteko prentsaurrekoan ere, Jaurlaritzaren zentsura ekonomikoa aipatu zenuen. Esplikatu duzu puntu hau?

UGALDE.- Hori oso erraz ulertzen da. Idazlea naiz. Baditut 35 liburu eginak. Etorri nintzanean frankismoaren zentsura izan nuen. "Síntesis de la Historia del País Vasco", "Hablando con los Vascos", horiek denak idatzi nituenean, hor gorde ditut nik zenbat orri kendu zizkidaten... orrialde osoak kendu zizkidaten. Orduan, zentsura hori denok

sufritu dugu. Nik uste nuen euskal demokrazia batean ez zela horrelakorik izango. Eta aizu, liburuetan zentsurarik ez dugu izan orain arte, baina zentsura egiteko modu asko dira eta bai dirua ukatzea da, tokatzen zaigun dirua ez ematea, guri publizitate ofiziala ez ematea. Hori da gu itozteko eta isiltzeko zentsura. Francok horixe bilatzen zuen, jendea isiltzea, berak nahi zituen gauzak bakarrik ateratzea. Administrazio hau hortara jarri da orain. Dirua kendu bidez, guri hitzegiteko dugun eskubide demokratikoa kentzea. Eta hau euskal demokrazi batean gertatzea ezin sinestekoa da. Eta salatu egin behar dugu hori.

EGUNKARIA.- Joseba Arregirekin izandako azken bileratik irten ondoren, halako zerbait esan zenuen: "Ez zait mamu bat gehiago kabitzen golkoan". Ze susmorik agertu zuen Kultura sailburuak EGUNKARIAri buruz?

UGALDE.- Berarekin izan garen bi aldietan esan du gu egiten ari garena ez zaiola asko gustatzen, eta gainera mamuak badaudela tartean. Mamuak, gerra denboran, exilioan, nere aita eta ni, denak izan gara hor mamu horietan: "gorriak" izan gara, "komunistak", "separatistak". Gauza asko bota dizkigute, ez bakarrik guri, baita gure lehendakari Agirrereri ere.

Orain Euskal Herri demokratiko batean gaudela Jaurlaritzatik norbaitek, Arregik bezala kasu honetan, gure artean mamuak somatzen dituela esatea... Nik ezin dut gehiago eraman, egia esan. Entzun dut askotan berak esandakoa baina niri aurrez aurre berriz esan zidanean, esan nion. "Aizu nahikoa dut".

Nire herritarra da. Ezagutzen nau ni ondo, nere aita ere ezagutzen zuen ondo, bere aita nik. Gure artean mamuak badaude oraindik, ezagutzen garen herritarren artean... Esan dezala mamu horiek zeintzu diren.

EGUNKARIA.- Bilera honetatik erantzunik izan da? Nola daude harremanak Jaurlaritza eta EGUNKARIAren artean?

UGALDE.- Ez. Arregik hilabete edo hilabete t'erdira zerbait erantzungo zuela esan zuen. Hau martxoan izan zen. Geroztik hiru hilabete pasatu dira eta ez digu erantzun.

EGUNKARIA.- "Zabaldu publizitate instituzionalaren ateak" dio igandeko festaren iragarkiak. hala ere, Gasteiztik esaten da EGUNKARIAren publizitaterik ez sartzeko nolabaiteko agindua ez dagoela, sail bakoitzak bere erabakiak hartzen dituela.

UGALDE.- Ez dut sinesten. Guri, gainera, instituzioetan lan egiten duten zenbait tekniko eta profesionalak aitortu digute irizpideak goragoko mailatik datozela. Pertsona batzuk esan digute, beraien erabakia ez dela, hori goitik datorrela.

EGUNKARIA.- Zeintzuk lirateke Jaurlaritzaren boikota salatzeke kanpainaren oinarriak?

UGALDE.- Batetik informazioa zabaltzea dago, jendeari egoeraren berri ematea. Txostenak zabalduta ditugu horretarako. Euskal gizartea osatzen duten elkarte eta pertsona askok jaso dituzte gure eskutik publizitate arloan gertatzen ari zaigunaren datuak. Bestetik, mozio bat bideratuko dugu udaletxeetara. Mozio honek eskatzen du udaletxe bakoitzak EGUNKARIAri publizitatea zuzentzea. Beste instituzioei ere publizitatea ematea eskatzen zaie mozioan. Hor dagoen diskriminazioa, ez da bakarrik EGUNKARIAri egiten zaiona, baizik eta euskaldunon oinarritzko eskubide bat ere ukatzen dela. Eta hau juzgadura eramango dugu. Orduan, kanpainan daude batetik informazioa zabaltzea, eta gero mozioak, bide legalak eta ekainaren 21eko festa.

EGUNKARIA.- Diru iturri hauek itxita segituko balute zer egingo luke EGUNKARIAK?

UGALDE.- Oraindik urte erdi bat gelditzen zaigu bigarren urtea egiteko. Urte erdi honetan nahiko estu gabiltza baina jendearengandik jasoko dugun laguntzak nik uste dut emango digula arnasa. Eta bestalde, jendea gero eta gehiago ari da EGUNKARIA erosten. Eta horrek ere laguntzen digu. Eta gero, pentsatzen dugu, orain arte akzioak erosi dituen jendea gehituko dela pixka bat. Guk eskariak egin eta gero aurrean irauteko bidea badugu. Publizitatearen bide komertzial guztiak ari gara bultzatzen eta honekin nik uste gauza izango garela irauteko beste urtebete. Eta bigarren urtebete hau betetzen dugunean, nik uste dut herriak, Jaurlaritzak, eta gainontzekoek nolabait konturatu behar dutela bi urte egin dituen egunkari batek segitu behar duela eta gure Legebiltzarrak ere legalki modu bat bilatuko duela diru hori lortzeko. Itxaropena daukagu alde horretatik, pentsatzen dugulako gure herriari ezin zaiola ukatu egunkari baten lana. Aurrera aterako gara.

EGUNKARIA.- Bukatzean, festaren bezperan zer esango zenieke batetik Jaurlaritzari, eta bestetik Usurbila gerturatuko diren euskaldun eta euskaltzale guztiei?

UGALDE.- Ba, Jaurlaritzari esan berriz herriarengana goazela. Eta herri dela hainbeste lagundu diguna, lehen eta orain ere bai. Eta Jaurlaritzak orain arte bezala jarraitzen badu, guri publizitatea ukatzen, zentsura ekonomikoa jartzen herri honek bilatuko duela beste soluzio bat euskarak aurrerako bidean egiteko. Ez dugu etsiko eta bigarren urtera iristen bagara, hirugarren pausua emateko gauza ere izango gara. Euskaldun eta euskaltzaleei eskerrak emango nizkieke laguntza eman digutelako.

Haiek EGUNKARIA egunero kalean erosi ez bazuten, ez ginen hemen izango. Hori egin dute eta horri eutsi urte t'erdian. Ospakizun guztiari erantzun ona eman diote. Usurbilgo festa prestatzen eta laguntzen ere izan dira eta indarra eman digute. Eskerrak berriz ere zuengatik bizirik garelako.